



# LEGAZPI KLIMA 2030

## LEGAZPI 2016 URTEAN



LEGAZPIKO  
UDALA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y POLÍTICA TERRITORIAL



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# AURKIBIDEA

**AURKEZPENA**

orrialdea 3

**01 LURRALDEA ETA PLANEAMENDUA**

orrialdea 4

**02 BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA**

orrialdea 4

**03 URA**

orrialdea 5

**04 ENERGIA**

orrialdea 5

**05 KLIMA- ALDAKETA**

orrialdea 6

**06 OSASUNA**

orrialdea 7

**07 ALDE BATETIK BESTERA JOATEKO ERA**

orrialdea 8

**08 EKONOMIA**

orrialdea 9

**09 ZABORRA, AIRE KALITATEA, ZARATA  
ETA LUR KUTSATUAK**

orrialdea 10

**10 UDALAREN FUNTZIONAMENDUA**

orrialdea 11

**11 HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA,  
BERDINTASUNA ETA ELKARBIZITZA**

orrialdea 12



## AURKEZPENA

Legazpiko Udalak 2016an Legazpi nolakoa zen aztertu du.  
Agiri honetan irakur dezakezue Udalak bildu duen informazio hori.

Hemendik aurrera Legazpi Klima 2030 Plana egingo du Udalak.  
Plan horrek **garapen iraunkorra** bultzatuko du  
eta **klima-aldaketari** aurre egiten lagunduko du.

### **GARAPEN IRAUNKORRA:**

Pertsona guztien bizi-kalitatea bermatzea da.  
Hori lortzeko pobrezia desagertu behar da  
eta planeta zaindu behar dugu.

### **KLIMA-ALDAKETA:**

Gizakien jokabideak luraren tenperatura igotzen du.  
Aldaketa horren ondorio dira: bero-boladak, edateko ur falta, uholdeak...





## 01 LURRALDE ETA PLANEAMENDUA

→ Legazpi oso zabala da eta mendi asko ditu.

→ Ondo zaintzen ditugu gure eraikin eta bestelako baliabide garrantzitsuak.

→ Ez dago emakumezkoen izenik duen kalerik.



→ Udalak hondatuta zeuden zoruak berreskuratu ditu. Adibidez Urtatza-zahar parkea.

## 02 BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA



→ Legazpin pinu asko daude.

→ Zenbait zuhaitz eta lore mota bertako espeziei kalte egiten die.


→ Arrain mota ezberdin gutxi ditugu Legazpin.

→ Mehatxatutako 50 animalia espezie desberdin bizi dira.

→ Legazpik natur gune interesgarriak ditu, Aizkorri-Aratz mendilerroa eta Korostiaga mendia adibidez.



## 03 URA



→ Legazpiko ura ona da.

→ Ura ondo erabiltzen ikasteko kanpainak egin dira.

→ Ibaien ur kalitatea ere ona da baina okerrera egin du.

→ Legazpiarrok gero eta ur gutxiago kontsumitzen dugu.

## 04 ENERGIA



→ Legazpiko familiek elektrizitate gutxiago kontsumitzen dute.

→ Industriek eta ibilgailuek erabiltzen dute energia gehien.

→ **Energia berriztagarriak** gutxi erabiltzen dira.

### ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Adibidez eguzkitik, haizetik edo lurretik lortzen den energia da. Amaigabea da eta ez du kutsatzen.





## 05 KLIMA-ALDAKETA



- Orain dela 10 urte baino **berotegi-efektuko gas** gutxiago dago.
- Legazpiko Udalak **klima-aldaketari aurre egiteko** planak jarri ditu.
- Klima-aldaketak eraginak izan ditzake Legazpin: uholdeak, bero-boladak, etab.

### **BEROTEGI-EFEKTUKO GASAK**

Gas horiek aireratzen dute fabrika eta lantegiek, autoek,... etab. Gas horiek lurra berotzen dute eta klima aldatzea eragiten dute.



### **KLIMA- ALDAKETA**

Gizakien jokabideak lurraren tenperatura igotzen du. Aldaketa horren ondorio dira: bero-boladak, edateko ur falta, uholdeak...





## 06 OSASUNA

→ Duela 20 urte Legazpin pertsona gehiago bizi ziren.

.....

→ Legazpin pertsona nagusi asko daude eta haur gutxi.

.....

→ la legazpiarren erdia emakumezkoak dira  
eta beste erdia gizonezkoak.

.....



→ Legazpin gertu ditugu farmaziak  
eta eskualdeko ospitalea.

.....

→ Legazpin, Euskadiko beste herrietan baino  
etxe huts gehiago daude.

.....

→ Etxe zahar asko daude.

.....



→ Kirola egiteko instalazio asko eta aukera handia dago.

.....

→ 15 kirol klub daude.

.....

→ Kirol klubetan emakume gutxik hartzen dute parte.

.....



**07**

**ALDE BATETIK BESTERA JOATEKO ERA**



→ Legazpiarrak oinez eta autoz ibiltzen gara gehienetan.

→ Herrigunean autoek abiadura moteldu behar dute.

→ Txirrindulariek oinezkoak errespetatu behar dituzte.

→ Oinezkoek bidegorriak errespetatu behar dituzte.



→ JUNETORRI zerbitzua asko erabiltzen da eta oso ondo baloratzen da.

→ Donostiara eta Gasteizera joateko tren gehiago eskatzen dituzte herritarrek.

→ Aparkaleku gutxi daudela uste du jende askok.

→ Bizikleta erabiltzeko bidegorri eta kale asko prestatu dira, baina auzoak ere egokitu behar dira.

→ Auzoetan oraindik oztopo asko kendu behar ditu Udalak.





## 08 EKONOMIA



→ Geroz eta abeltzain eta nekazari gutxiago dago.

→ Legazpiko enpresa batzuk beste herri batzuetara joan dira.

→ Gero eta denda gutxiago daude Legazpin.

→ Legazpiar asko inguruko herrietara joaten dira erosketak egitera.



→ Gero eta gehiago erosten dugu merkatalgune handietan.

→ Turista gutxi daude Legazpin.

→ Legazpiar gehienek lana dute.

→ Pertsona askok, Legazpin bizi diren arren, beste herri batean egiten dute lan.

→ Etorkizunari begira langileen prestakuntza hobetzea garrantzitsua da.

→ Etxetik kanpo lan egiten duten emakume gutxi daude.



09

## ZABORRA, AIRE KALITATEA, ZARATA ETA LUR KUTSATUAK



→ Azken urteotan hondakin gutxiago sortu dugu.

.....



→ Gero eta jende gehiagok birziklatzen du.

.....

→ Sasetak eta Udalak hondakin gutxiago sortzeko kanpainak egiten dituzte.  
Adibidez, poltsa berrerabilgarriak banatu,  
jakiontzi eta orgatxoan erabilera bultzatu.

.....

→ Ibilgailuek eta fabrikek usaina eta kea sortzen dituzte.

.....

→ Airearen kalitatea hobetu da.

.....

→ Fabrikek ke gehiegi eta usain txarra botatzen dutela uste dute legazpiarrek.

.....

→ Udala herriko toki desberdinetan dagoen zarata maila aztertzen ari da.

.....

→ Kutsatuta dauden lurrak berreskuratzeko lanean ari da Legazpiko Udala.

.....



## 10 UDALAREN FUNTZIONAMENDUA

→ Udalak ingurumena zaintzen du,  
baina oraindik gehiago egin dezake.

.....



→ Herritarrek herriko gaietan parte har dezatela  
bultzatzen du Udalak.

.....

→ Elkarte asko daude Legazpin eta Udalarekin lan egiten dute.

.....



→ Legazpiko Udalak web orria dauka  
eta sare sozialak erabiltzen ditu.  
Herritarrek ez dituzte gehiegi erabiltzen.

.....

→ Udalak kanpaina ezberdinak egiten ditu.  
Adibidez, hondakinak, kontsumo arduratsua  
edo mugikortasunari buruzkoak.

.....

→ Erreka Eguna eta Mugikortasun Astea antolatzen ditu.

.....

→ Legazpiko **Tokiko Agenda 21**ek sariak jaso ditu.

.....

### TOKIKO AGENDA 21


Herrian garapen iraunkorra bultzatzeko plangintza da.





11

## HEZKUNTZA, EUSKARA, KULTURA, BERDINTASUNA ETA ELKARBIZITZA



→ Eskaintzen den heziketa ona da.

→ Gero eta emakume gehiagok ikasten dute lanbide-heziketan.

→ Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, BELDUR BARIK programa dago.

→ Gazteek gutxi hitz egiten dute euskaraz.

→ Auzoetan euskara gutxi erabiltzen da.

→ Herriaren erdigunean euskara gehiago hitz egiten da.

→ Udalak zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen ditu.

→ Legazpi herri lasaia da.

→ Noizean behin lapurretak gertatzen dira etxe nahiz kaleetan.

→ Programazio kulturala herriko elkarteekin batera egiten da.

→ Beste herrialdeetatik etorritako pertsonak eta herrikoak gutxitan elkartzen dira.



→ Kultur ekintza asko antolatzen dira.